

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2502

750/2020 EBAZPENA, ekainaren 5ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gero- tearena, zeinaren bidez María Aranzazu Ochoa de Eguileor Arregui andrea Aparatu Digestiboko Zerbitzuko gainbegirale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza) izendatu den, izendapen askez, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

53/2020 Ebazpenaren, urtarrilaren 13koa, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integra- tuan Aparatu Digestiboko Zerbitzuko gainbegirale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Aranzazu Ochoa de Eguileor Arregui andreak dituen ezagutza aka- demiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Aparatu Digestiboko Zerbitzuko gainbegi- rale (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. Artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Aranzazu Ochoa de Eguileor Arregui andrea izendatzea Aparatu Digestiboko Zerbitzuko gainbegiralea (Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitza) Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko ekainaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

2020ko ekainaren 25a, osteguna

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 5a.

Arabako ESIko zuzendari gerentea,
JESÚS LARRAÑAGA GARITANO.